

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Data: 2021eko irailaren 8a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2021eko urriaren 13ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Daniel Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia). Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Gai-zerrenda

1. Onestea 2021eko uztailaren 14an eginiko aurreko ohiko bilkurako akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
 - 3.1. Behin betiko onestea Arabako Errioxako Urkidetzako Estatutuen aldaketa.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. Lanbidek enplegu-bulego gisa eta beste erabilera batzuetarako erabil dezan ondare-ondasuna doan lagatzea.
 - 6.2. Osakidetzan osasun-zentro gisa erabil dezan ondare-ondasuna doan lagatzea.
 - 6.3. Lurraldeko osasun-delegazioak ingurumen-osasunerako eskualdeko bulego gisa erabil dezan ondare-ondasuna doan lagatzea.
 - 6.4. Ostalaritzako negozioen kasuan, aulkiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatik tasaz eta HHSen bilketa-zerbitzua emateagatik tasaz salbuesteko adierazpena.
 - 6.5. Oyón-Oiongo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 9. aldaketa puntualaren testu bategina onestea. Helburua da otsailaren 14ko 40/2020 Foru Aginduan ezarritako baldintzekin industria-zoruan erabilerak gehitzea.

Azken puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. **Onestea 2021eko uztailaren 14an eginiko aurreko ohiko bilkurako akta.**

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea **2021eko uztailaren 14an** eginiko aurreko ohiko bilkuraren akta.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) eta Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP).

Abstentzio 1 (bat): Eduardo Inclán Gil (PP).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 133/2021 eta 172/2021 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea

3.1. Behin betiko onestea Arabako Errioxako Urkidetzako Estatutuen aldaketa.

Aurrekariak:

- 1) Arabako Errioxako Urkidetzako Batzar Nagusiak, 2021eko maiatzaren 7an eginiko bilkuran, Arabako Errioxako Urkidetzako Estatutuak aldatzea onetsi zuen.
- 2) Espedientea jendaurrean jarri da eta, horretarako, iragarkia 2021eko maiatzaren 19ko ALHAOn (54. zk.) argitaratu da. Hasiera batean onesteari alegaziorik ezin ez zaionez, behin betiko onetsi dira, eta aldaketaren testu osoa 2021eko uztailaren 19ko ALHAOn (80. zk.) argitaratu da.
- 3) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47.2.g) artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, ezinbestekoa da mankomunitateak edo beste elkarterakunde batzuk sortu, aldatu edo desegiteko, bai eta horietara atxikitzeko nahiz estatutuak onetsi eta aldatzeko ere, Osoko Bilkurak erabakia hartzea kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz.
- 4) Idazkari-kontu-hartzaileak aldeko txostena egin du.
- 5) Ekonomia eta Ogasun Informazio Batzordeak 2021eko irailaren 1eko bilkuran egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea Arabako Errioxako Urkidetzako Estatutuen aldaketa, 2021eko uztailaren 19ko ALHAOn (80. zk.) ageri den aldaketaren testu osoaren arabera.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

2 (bi) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion) eta Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion).

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Abstenitu egin gara Urkideztaren erabakiak anabasa hutsak baitira.

Alkate jn.: Samaniego Eh Bildu Urkideztari buruzko erabakiaren alde azaldu da.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Eh Bildu Oion eta Eh Bilbu Samaniego taldeek modu independentean erabakitzen dute.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea

5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea

6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea

6.1. Lanbidek enplegu-bulego gisa eta beste erabilera batzuetarako erabil dezan ondare-ondasuna doan lagatzea.

Alkate jaunak agindu ostean, idazkari jaunak espedientearen berri eman du:

Oyón-Oiongo Udalbatzak, 2021eko uztailaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen ondare-ondasunen artean 430314670000010017 eta 430314670000020017LO katastroko erreferentziarekin identifikatutako higiezina (kokapena: Giralda kaleko 1. zenbakia eta San Martin kaleko 7. zenbakia) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari doan lagatzea Lanbidek enplegu-bulego gisa eta beste erabilera batzuetarako erabil zezan. Ondasunaren balioa 165.966,32 eurokoa da. Espedientea 20 (hogei) egunez jendaurrean jartzea erabaki da. Eta ebazpen hau behin betikotzat hartuko da, erreklamaziorik egon ezean.

2021eko uztailaren 23ko (ostirala) ALHAOn (82. zk.) (2021-02627 iragarkia) iragarri zen jendaurreko epealdia, eta ez da erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, uztailaren 14ko bilkuran hartutako erabakia behin betikotzat har daiteke.

Ez da ezer bozkatu behar.

6.2. Osakidetzan osasun-zentro gisa erabil dezan ondare-ondasuna doan lagatzea.

Alkate jaunak agindu ostean, idazkari jaunak espedientearen berri eman du:

Oyón-Oiongo Udalbatzak, 2021eko uztailaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen ondare-ondasunen artean 43010328000001 katastroko erreferentziarekin identifikatutako higiezina (kokapena: Foruen kaleko 11. zenbakia) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari doan lagatzea osasun-zentro berria eraikitzeko. Ondasunaren balioa 234.313,84 eurokoa da. Espedientea 20 (hogei) egunez jendaurrean jartzea erabaki da. Eta ebazpen hau behin betikotzat hartuko da, erreklamaziorik egon ezean.

2021eko uztailaren 23ko (ostirala) ALHAOn (82. zk.) (2021-02626 iragarkia) iragarri zen jendaurreko epealdia, eta ez da erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, uztailaren 14ko bilkuran hartutako erabakia behin betikotzat har daiteke.

Ez da ezer bozkatu behar.

6.3. Lurraldeko osasun-delegazioak ingurumen-osasunerako eskualdeko bulego gisa erabil dezan ondare-ondasuna doan lagatzea.

Alkate jaunak agindu ostean, idazkari jaunak espedientearen berri eman du:

Oyón-Oiongo Udalbatzak, 2021eko uztailaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen ondare-ondasunen artean 43010331000001 katastroko erreferentziarekin identifikatutako higiezin (kokapena: Foruen kaleko 6. zenbakiko 1. solairua) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari doan lagatzea lurraldeko osasun-delegazioak ingurumen-osasunerako eskualdeko bulego gisa erabil dezan. Ondasunaren balioa 27.014,20 eurokoa da. Espedientea 20 (hogei) egunez jendaurrean jartzea erabaki da. Eta ebazpen hau behin betikotzat hartuko da, erreklamaziorik egon ezean.

2021eko uztailaren 23ko (ostirala) ALHAOn (82. zk.) (2021-02628 iragarkia) iragarri zen jendaurreko epealdia, eta ez da erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, uztailaren 14ko bilkuran hartutako erabakia behin betikotzat har daiteke.

Ez da ezer bozkatu behar.

6.4. Ostalaritzako negozioen kasuan, aulkiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz eta HHSen bilketa-zerbitzua emateagatiko tasaz salbuesteko adierazpena.

Aurrekariak:

1. Ostalaritzako negozioen kasuan, aulkiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz salbuesteko adierazpen-proposamena.
2. Ostalaritzako negozioen kasuan, HHSen bilketa-zerbitzua emateagatiko tasaz salbuesteko adierazpen-proposamena.
3. 2020ko maiatzeko bilkuran 2020 ekitaldirako tasak eta zergak ez kobratzeari buruzko erabakia.
4. Informazio Batzordearen saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea ostalaritzako negozioen kasuan, 2021 ekitaldirako aulkiekin, mahaiekin eta mahaitxoekin erabilera publikoko lurrak okupatzeagatiko tasaz salbuestea.
2. Hasieran batean onestea ostalaritzako negozioen kasuan, 2021 ekitaldirako HHSen bilketa-zerbitzua emateagatiko tasaz salbuestea.
3. Hori jendaurrean jartzea, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluek ezarritako moduan eta epeetan.
4. Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean.
5. Behin betiko onspen-erabakia argitaratzea, arauak ezarritako moduan eta epean.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Oiongo EH Bildu), Eva Frías del Val (Oiongo EH Bildu), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

6.5. Oiongo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 9. aldaketa puntualaren testu bategina onestea. Helburua da otsailaren 14ko 40/2020 Foru Aginduan ezarritako baldintzekin industria-zoruan erabilerak gehitzea.

I. Aurrekariak

- 1) Ingurumen eta Hirigintza diputatuaren otsailaren 14ko 40/2020 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsi zen Oiongo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 9. aldaketa puntuaren espedientea, industria-lurzoruan baimendutako erabilerak gehitzeari buruzkoa, baldin eta ebazpen honen laugarren oinarrian adierazitako alderdiak betetzen badira. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak; beraz, behin konponduta, espedientea Foru Aldundira igorriko zaio, jendaurrean jartzeko izapide berria egin behar izan gabe, exekutibotasuna aitortu eta diligenziak egin eta argitaratze aldera.
- 2) Laugarren oinarriko baldintzak honako hauek dira: Oion udalerriko hirigintza-plangintzaren eta aplikatu behar zaion hirigintza-legediaren arabera dokumentua aztertu ondoren, zuzendu beharreko alderdiak daude, eta ondorengo ataletan ageri dira:
 1. Araudiaren indarreko idazketa “OY.29 Antolamendu Xehatuko Eremurako” aldaketarekin ez dator bat. Aldaketa 2018ko urriaren 10eko ALHAOn argitaratuta dago.
 2. “
 3. 1.3.2.4 artikuluko 6., 7. eta 8. atalak aldatuko dira eta aldatutako artikuluetan sartu diren erabilera bateragarri berrietara egokituko dira, koherentziarik ezak saihesteko.
 4. 1.5.2.10 eta 1.5.2.11 artikuluetako 11. atalaren idazketan eraikinek adierazitako solairu kopurua ez gainditzea nahi bada -ez nahitaezkoa izatea-, azalduko da eraikuntzaren profila gehienekoa dela.
 5. 2.1.1.36 artikuluko 2.3 B.ii atalean (AOP OY.29)(AOP OY.29) horretan azal dutakoa zehaztuko da honako idazketa honekin: "...eta bigarren solairua; eraikuntzaren profila eta gutxieneko altuera libreak betetzea errespetatuko da, betiere...".
 6. Aldatutako araudiaren barruan ukitu diren artikuluetan “zerbitzu-azpiegituren” kontzeptua argituko da. HAPO honen araudian (1.3.1.19 artikulua) erabilera azpiegiturekin eta telekomunikazioekin lotutako zerbitzuak emateko jardueri (zerbitzuen sare publikoak) dagokie, baina kontzeptu berak 1.5.2.10 eta 1.5.2.11 artikuluetan bestelako interpretazioa du. Jarduera zehatzaren erabilera osagarritzat jotzen da, eta ezinbestekoa da behar bezala funtzionatzeko. Beraz, azkeneko honetan beste modu batean idatziko da ez nahasteko.
 7. Proposatutako araudiaren atalen zenbakiak ikuskatuko dira.
 8. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostenari dagokionez, hirigintza-araudian JPHaren 9.ter eta 14.bis artikulua sartuko dira.
 9. Hegazkineria Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txostenari dagokionez, arau-izaerarekin Logroño-Agoncilloko aireportuko zortasun aeronautikoen planoak sartuko dira. Plano horiek txostenari erantsi zaizkio. Horrez gain, txostenaren “ondorioak” atalean dauden zenbait xedapen kontuan hartuko dira.
 10. Aldaketak euskarri informatikoan azalduko dira, eta dokumentu teknikoaren edukia berriz ere fitxategi editagarrietan eta ez-editagarrietan aurkeztuko da.

Proposamena:

- 1) Onestea Oion udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 9. aldaketa puntualari dagokion testu bategina, Arabako Foru Aldundiak otsailaren 14ko 40/2020 Foru Aginduan onartutakoa.
- 2) Arabako Foru Aldundiari helaraztea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Oiongo EH Bildu), Eva Frías del Val (Oiongo EH Bildu),

Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Azken puntua) Galde-eskeak

Gamarra López-Brea jaunak (PSE-EE PSOE) kirol-zerbitzuen kontratuko lizitazioaren errekursoari buruz galdetu du.

Idazkari jauna: Alkatetzaren ebazpenaren bidez BPXport Kirol Zerbitzuak SL eta Agua y Jardín SL ABEEri zerbitzua emateko epea luzatu zitzaion, gutxienez, 2021eko ekainaren 10etik irailaren 15era. Esleipenaren aurka errekurtoa jarri da eta Euskadiko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (KEAO) ebaztearen zain gaude.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Jaietako ostiralean plazan 4 edo 5 Ertzaintza patruila azaldu ziren, eta eskuan borrak eramaten zituzten.

Tarragona Elejalde jn. (EAJ-PNV): Egun horretan plazan nengoen eta ez zen ezer gertatu. Ez dizute informazio zuzena eman.

Alkate jn.: Ertzaintzaren jarduketetan bi jarduketa-txosten daude, bata, terraza batean bozgorailua jartzeagatik eta, bestea, zutik kontsumitzeagatik.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Tabernei plaza garbitzea esan zaie?

Alkate jn.: Aurten programatutako ekitaldien arabera, ez dugu bidezkotzat jo bide-garbitzaren zerbitzuak gehitzea eta tabernei eskatu zitzaaien terrazen eremuak garbitzeko. Bestalde, hori da ordenantzak dioena.

Gamarra López-Brea jaunak (PSE-EE PSOE) bilkura 20:54an utzi du.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Oso desatsegina iruditzen zait Adonis tabernarekin izandako gorabehera. Ezin daiteke esan COVID-19aren dirulaguntza jokoan dagoela; hori mehatxu bat da. Fatxadaren koloreei buruz, lehen grisa zegoen.

Tarragona Elejalde jn. (EAJ-PNV): Agian, ikusitakoa ez zenuen behar bezala interpretatu.

Alkate jn.: Adoniseko arduradunek ez zuten margotzeko baimenik eskatu. Agian, gauza erraz batean erratu dugu, hain zuzen ere, lizentziarik gabe ari zirela ez ohartaraztean. Maiatzeko osoko bilkuran BEPBren fatxadetan erabil daitezkeen koloreak onetsi genituen eta ulertu genuen hirigintzako txosten negatiboak dirulaguntzaren espedientean eragin dezakeela.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Arauak agintzen duena egin behar da. Baina ezin zaitezke modu horretan joan. Ez dut argi margotzeko lizentzia eskatu behar denik.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Herria oso zikina dago.

Alkate jn.: Zerbitzuaren kontratistarekin egingo dugun jarraipen-batzordean gai hori eta bestelakoak planteatuko ditugu.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:25ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2021eko irailaren 27an

Udaleko idazkaria:

O.E. Alkatetza